

**DUETO BILBAO programan parte hartu nahi
duten ETEentzako deialdia**

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	3
2. DEIALDIAREN XEDEA	3
3. DUETO BILBAO PROGRAMA	4
3.1 Baldintza ekonomikoak	4
3.2 Programaren helburuak	5
3.3 Programaren faseak	5
4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.	7
5. FIDANTZA	7
6. PROIEKTUAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA	8
7. BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURA	9
8. DATU PERTSONALEN BABESA	11
9. KONFIDENTZIALTASUNA	12
10. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA	13

1. AURKEZPENA

Bilbao Ekintza, EPELeK (aurrerantzean, "Bilbao Ekintza") Bilbon aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea du helburu, eta, horretarako, inbertsioak egiteko, enpresak sortzeko eta bertan hazteko, bisitariak eta talentua erakartzeko gaitasunak indartzen dihardu eta laneratzeko aukerak hobetzen ditu.

Testuinguru horretan, Bilbao Ekintzak Berrikuntzako Ekosistemen Unitatea du, Hiri Ekonomiaren Sailean integratua. Unitate horren lehentasuneko helburuen artean dago hiriaren garapen ekonomikoa bultzatzea, gorabidean dauden sektoreen aldeko apustu estrategiko baten bidez, espezializazio adimendunaren esparruan, eta horien artean diseinua nabarmentzen da.

Alde horretatik, dokumentu honen xedea da Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek sustatutako Dueto Bilbao Programan parte hartzeko baldintzak arautzea. Programa hori tokiko ekonomia sustatzeko tresna da, hau da, enpresei berrikuntzan eta diseinuan laguntzeko zerbitzua ematea, eta enpresen eta diseinu-estudioen arteko lankidetzaren prozesua antolatzea.

Programa interes publikoko zerbitzutzat jotzen da, Bilbao Ekintzak bere eskumenak erabiliz ematen duena, zehazki, sustapen ekonomikoaren arloan (TAOAL 25. art. eta 2/20216 Legeko 17. art.) eta bere estatutuetan Bilbao Ekintzari esleitutako eginkizunak betez.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da Dueto Bilbao programan parte hartu nahi duten enpresak identifikatzea eta enpresa horietako bat hautatzea, diseinu-estudio batekin lankidetzan proiektu bat garatzeko, enpresak berak planteatutako erronkatik abiatuta.

Enpresa interesdunek konpromiso hauek hartzen dituzte beren gain programaren esparruan:

- a) Erronka estrategiko bat planteatzea, diseinu-metodologiak aplikatuz produktu edo zerbitzu berriak garatzea, daudenak funtsean hobetzea edo negozio-ereduaren, erabiltzaileen esperientziaren, barne-prozesuen edo enpresaren balio-proposamenaren funtsezko alderdiak eraldatzea ahalbidetuko duena.
- b) Bere jarduerari buruzko informazio nahikoa ematea, betiere isilpeko informazioa eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak babestuta.

- c) Proiektuaren garapenean aktiboki laguntzea, beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eskura jarritz.
- d) Parte hartzea formalizatzea, dagokion lankidetzak akordioa sinatuta.
- e) Proiektuaren irismena zehazten parte hartzea, diseinu-estudioarekin batera.
- f) BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.i baimena ematea sentikorrek ez diren informazioa edo proiektuaren emaitzak egoki irizitako bitartekoetan argitaratzeko, zabalkunde hori egiteko behar diren informazioa eta materialak emanaz.
- g) Enpresak proiektuaren hedapen-, komunikazio- eta/edo publizitate-jarduerak eginez gero, ematen zaizkion logotipoak sartu beharko ditu, eta adierazi beharko du proiektu hori Dueto Bilbao programaren barruan dagoela.

3. DUETO BILBAO PROGRAMA

Dueto Bilbao programaren helburu nagusia diseinua enpresetan tresna estrategiko gisa txertatzea da, lehiakortasuna hobetuko duten irtenbide berritzaileak sortuz.

Horretarako, Dueto Bilbao programak Bizkaiko enpresa baten (erronka estrategiko bat planteatzen duena) eta Bilboko diseinu-estudio baten arteko lankidetzak bultzatzen du, diseinu-metodologiaren bidez irtenbide berritzaileak garatzeko. Lau hilabetez, diseinu-estudio batek enpresa bati laguntzen dio lehentasunezko zatitako erronka bati aurre egiten.

Deialdi honen ondorioetarako:

- Enpresa: proiektuaren xede den erronka proposatzen duen enpresa parte-hartzailea da.
- Diseinu-estudioa: proiektua garatuko duen diseinuaren arloko profesionala, taldea edo enpresa (autonomoak barne).

3.1 Baldintza ekonomikoak

Hautatutako enpresak, proiektua hasi aurretik, mila euroko (1.000 €) bermea eratu beharko du, programan parte hartzetik eratorritako betebeharrak behar bezala betetzeko eta parte hartzeko konpromiso gisa. Berme hori programaren esparruan hartutako betebeharrak betetzeari lotuta geratuko da.

Hautatutako enpresak bere gain hartuko ditu, hala badagokio, proiektutik erator daitezkeen materialen kostuak.

Bestalde, Bilbao Ekintzak diseinu-estudioaren kontratazioa finantzatuko du, 10.000 eurokoa (gehi BEZa), programaren esparruan zerbitzuak emateko.

3.2 Programaren helburuak

Dueto Bilbao programaren helburuak dira diseinua enpresa-ehunean tresna estrategiko gisa sardadin sustatzea, diseinuak enpresen lehiakortasunean duen eragina agerian uzten duten emaitza ukigarriak sortzea eta lurraldeko sorkuntza- eta enpresa-ekosistema indartzea.

3.3 Programaren faseak

Programa ondoko aldi eta mugarriei jarraituz garatuko da:

a. Enpresa parte-hartzailea hautatzea

Bilbao Ekintzak erronka proposatuko duen enpresa aukeratuko du, oinarri hauetako 7. puntuan deskribatutako hautaketa-irizpideen arabera.

b. Diseinu-estudioa hautatzea

Erronka hautatu ondoren, diseinu-estudioa hautatzeko prozesuaren oinarri arautzaileak argitaratuko dira, eta bi fasetan garatuko da:

- *1. fasea. Hautagaien ebaluazio teknikoa*

Behar bezala argitaratuko dira diseinu-estudioak hautatzeko oinarriak eta Bilbao Ekintzak oinarri horietan deskribatutako hautaketa-irizpide eta -prozeduren arabera ebaluatuko ditu diseinu-estudioek aurkeztutako hautagaitzak.

- *2. fasea. Ebaluazio kualitatiboa*

Aurrez hautatutako hautagai-zerrendek aurkezpen- eta kontraste-saio batean parte hartuko dute, eta, bertan, beren hautagaitzak defendatu eta lan-ikuspegian sakondu ahal izango dute, diseinu-estudioak hautatzeko oinarrietan zehaztuko den moduan.

Parte hartzen duen enpresak fase honetan agente laguntzaile gisa parte hartu ahal izango du, hautagai-zerrendei buruzko balorazioa eginez. Nolanahi ere, diseinu-estudioak hautatzeko oinarrietan ezarritakoaren mende egongo da.

c. Diseinu-estudioaren azken hautaketa

Diseinu-estudioa hautatzeko, argitaratuko diren diseinu-estudioak hautatzeko oinarrietan deskribatutako hautaketa-irizpideak eta -prozedura hartuko dira kontuan.

Bilbao Ekintzak hartuko du azken erabakia, eta hautaketa oinarritzen duten irizpideak espedientearen behar bezala arrazoituta jasoko dira.

Hautagai bakar batek ere ez badu erronkarekiko behar adinako egokitzapen-mailarik lortzen, hautaketa-prozesua hutsik utzi ahal izango da.

d. Lankidetzaren formalizatzea

Lankidetzaren honako hauen bidez formalizatuko da:

- a) Lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea Bilbao Ekintza, E.P.E.L.en, enpresa parte-hartzailearen eta hautatutako diseinu-estudioaren artean.
- b) Enpresaren eta diseinu-estudioaren artean proiektua definitzeko dokumentu bat formalizatzea. Dokumentu horretan, gutxienez, proiektuaren irismena, helburuak, entregagaiak, lan-metodologia eta gauzatzeko baldintzak ezarriko dira.

e. Proiektuaren gauzatzea

Diseinu-estudioak hautatutako enpresarekin lankidetzaren garatuko du proiektua, gehienez ere lau (4) hilabetez, baina alderdiek berariaz adostuz gero, balizko luzapenak izan ditzake.

Bilbao Ekintzak proiektuaren jarraipen teknikoa egingo du, eta proiektua behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeko behar den informazioa bildu ahal izango du.

f. Itxiera eta ebaluazioa

Diseinu-estudioak, enpresa parte-hartzailearekin lankidetzaren, amaierako memoria bat egingo du, eta bertan jasoko dira egindako jarduketak, lortutako emaitzak eta, hala badagokio, horiek inplementatzeko edo etorkizunean garatzeko gomendioak.

Bilbao Ekintza, EPELe programaren emaitzak ebaluatuko ditu, hasieran ezarritako helburuen arabera.

g. Diseinu-estudioari ordaintzea

Diseinu-estudioari dagokion zenbatekoa bi fasetan ordainduko da:

- % 50 proiektuaren hasieran, dagokion kontratu-harremana formalizatu ondoren.

- Gainerako % 50a, proiektua amaitu ondoren, amaierako memoria entregatu eta baliozkotu ondoren.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan:

1. Nortasun juridikoa eta egoitza soziala edo lantokia Bizkaian izatea.
2. [Europako Batzordeko 651/2014 Erregelamenduan](#) ezarritakoaren arabera, mikroenpresa edo ETE (enpresa txiki eta ertaina) izatea.
3. Administrazio publikoarekin kontratatzeko edo harekin lankidetzan aritzeko debekurik ez izatea, indarrean dagoen araudiaren arabera.
4. Proiektua behar bezala garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak izatea, deialdian aurreikusitako baldintzetan.
5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Baldintza hori programaren garapen osoan mantendu beharko da.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, bai eta haiei lotutako edo haien mendeko erakunde, sozietate publiko edo entitateak ere.

5. FIDANTZA

Hautatutako enpresak, proiektua hasi aurretik, mila euroko (1.000 €) bermea eratu beharko du, programan parte hartzetik eratorritako betebeharrak behar bezala betetzeko eta parte hartzeko konpromiso gisa. Berme hori programaren esparruan hartutako betebeharrak betetzeari lotuta geratuko da.

Itzultzea

Bermea osorik itzuliko da programan parte hartzen amaitu ondoren, Bilbao Ekintzak egiaztatzen duenean enpresak bere gain hartutako betebeharrak bete dituela.

Konfiskatzea

Ez-betetzea gertatuz gero, osoa edo partziala izanik ere, Bilbao Ekintzak erabaki ahal izango du bermea osorik edo zati batean konfiskatzea, dagokion prozedura izapidetu ondoren, interesdunari entzunda, 39/2015 Legearen 82. artikulua arabera.

Ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta proportzionaltasunaren eta ez-betetzearen larritasunera egokitzearen printzipioak errespetatu beharko ditu.

Bermeak ez du inola ere zehapen-izaerarik izango, programari eragindako kalteen konpentsazio hutsa baizik.

6. PROIEKTUAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA**Modua**

Dueto Bilbao programan parte hartzeko eskaera aurkeztu nahi duten enpresek I. ERANSKINA (ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA) bete beharko dute eta II. ERASKINA (ERRONKAREN DESKRIBAPENA) agiriarekin batera helbide elektronikoa honetara bidali beharko dute: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Aurkezteko epea

15 egun balioudun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

Edozein kontsulta helbide elektronikoa honetara egin daiteke: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla oinarri hauetan adierazten diren betekizunak eta betebeharrak.

Bilbao Ekintzak eskaerak behar bezala ebaluatzeko behar-beharrezkoa den informazioa argitzeko edo zabaltzeko eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei, betiere tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta gardentasunaren printzipioak errespetatzen direla bermatuta.

7. BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURA

Baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, proiektuak baloratuko dira, irizpide hauei jarraituz:

IRIZPIDEA	DESKRIBAPENA	GEHIENKO PUNTUAZIOA (50 puntu)
<p>Erronkak enpresarentzat duen garrantzi estrategikoa</p>	<p>Planteatutako erronkak enpresaren benetako behar estrategiko bati zenbateraino erantzuten dion eta/edo enpresaren lehiakortasuna hobetzeko, merkatuan kokatzeko edo produktua edo zerbitzua bereizteko zer potentzial duen baloratuko da.</p> <p>Kontuan hartu beharreko alderdiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argitasuna erronkaren definizioan. • Negozioaren nukleoarekiko edo ildo estrategiko garrantzitsu batekiko lotura. • Erronkaren gaitasuna balio ekonomikoa, izen onari lotutako balioa edo merkatu-balioa sortzeko. • Erronkak zer neurritan ahalbidetzen duen funtsezko hobekuntzei, ikuspegi berriei edo irtenbide berritzailei heltzea. 	<p>25</p>
<p>Bideragarritasuna eta ezartzeko gaitasuna</p>	<p>Dueto Bilbao programako emaitzak programa amaitu ondoren frogatu, inplementatu edo jarraitu ahal izateko gutxieneko baldintzak badauden baloratuko da.</p> <p>Kontuan hartu beharreko alderdiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Barne-baliabideen eskuragarritasuna (pertsonek, denbora, inplikazioa). 	<p>20</p>
<p>Jasangarritasuna, inklusioa eta gizarte-balioak integratzea</p>	<p>Erronkak alderdi hauetako bat edo batzuk modu koherentean eta ez azalekoan zer neurritan txertatzen dituen baloratuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak, • ekonomia zirkularra, 	<p>5</p>

IRIZPIDEA	DESKRIBAPENA	GEHIENKO PUNTUAZIOA (50 puntu)
	<ul style="list-style-type: none"> • irisgarritasuna, inklusibotasuna edo eragin sozial positiboa. <p>Kontuan hartu beharreko alderdiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Produktuarekin/zerbitzuarekin koherentea izatea (greenwashinga saihestu). • Diseinuaren potentziala inpaktuak hobetzeko. • Erabiltzaileen aniztasunarekiko sentsibilitatea. 	

Enpresa parte-hartzaileak aukeratzeko prozedura norgehiagoka-erregimenean egingo da, eta publizitatearen, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokituko zaie.

Prozeduraren instrukzioa

Prozeduraren instrukzioa Bilbao Ekintza EPELen eskumeneko unitate teknikoak egingo du, eta hark egiaztatuko du parte hartzeko baldintzak betetzen direla, eta, hala badagokio, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko eskatuko du. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea emango du, 39/2015 Legearen 68. artikulua araber.

Balorazio organoa

Eskabideak Balorazio Batzorde Tekniko batek baloratuko ditu. Batzorde hori Bilbao Ekintzako teknikari kualifikatuek osatuko dute, eta batzorde horren osaerak kompetentzia profesionala, inpartzialtasuna eta independentzia bermatuko ditu.

Batzorde horrek txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan eskaerak oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera baloratuko ditu.

Proposamena eta ebazpena

Batzorde Teknikoaren txostena ikusita, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du, eta interesdunei jakinaraziko die, 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Ebazpenaren aurka, indarrean dagoen araudiaren arabera bidezkoak diren administrazio-errekurtsoak jarri ahal izango dira.

Balioespen-irizpideak aplikatu ondoren, eskaera bat bera ere egokitzat jotzen ez bada, gutxienerako 25 puntuko mugara iritsi ez delako, deialdia bete gabe utzi ahalko da.

8. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DPBEDBLO) xedatutakoaren arabera, jakinarazten da deialdi honen esparruan emandako datu pertsonalak Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek tratatuko dituela (helbidea: Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo), tratamenduaren arduraduna den aldetik.

8.1 Tratamenduaren helburua

Datuak Dueto Bilbao Programan aurkeztutako hautagaitzen parte-hartzea, ebaluazioa eta izapidetzea kudeatzeko erabiliko dira, honako hauek barne:

- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- Proiektuen balorazioa.
- Prozesuarekin lotutako komunikazioak kudeatzea.
- Programaren jarraipena, kontrola eta justifikazioa.
- Estatistika anonimizatuak egitea, politika publikoak ebaluatzeko.

Tratamendu horiek Bilbao Ekintzari enpresa-ehuna sustatzeko, diseinua eta berrikuntza bultzatzeko eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko esleitutako interes publikoko funtzioak betez egiten dira.

8.2 Tratamenduaren oinarri juridikoa

Tratamendua honetan oinarritzen da:

- DBEOren 6.1.e) artikulua: interes publikoaren alde edo botere publikoak baliatuz zeregin bat betetzea.
- DBEOren 6.1.c) artikulua: administrazio-araudiaren, gardentasunaren, kontrolaren eta ikuskapenaren ondoriozko legezko betebeharrak betetzea.
- DBEOren 6.1.a) artikulua: eskatzailearen berariazko baimena UCCN sarearen esparruan informazioa lagatzeko, hala dagokionean.

8.3 Datuak gordetzea

Datuak deskribatutako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta, ondoren, administrazio-erantzukizunari, kontratuari, kontabilitateari, gardentasunari eta artxibo publikoari buruzko legeriak eskatutako epeetan. Ondoren, behar bezala blokeatuko dira, eta, hala dagokionean, ezabatu egingo dira.

8.4 Hartzaileak eta lagapenak

Oro har, ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legezko betebeharretan izan ezik, gardentasunari, finantza-kontrolari, ikuskaritza publikoari edo jurisdikzio-organoen errekerimenduei buruzko araudietatik eratorritakoa barne.

8.5 Interesdunen eskubideak

Datuen titularrek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte honako eskubide hauek:

- Eskuratzea
- Zuzentzea
- Ezabatzea
- Aurka egitea
- Tratamendua mugatzea
- Eramangarritasuna, hala dagokionean, tratamenduaren arduradunari zuzendutako idazki baten bidez, bere nortasuna egiaztatuz, helbide honetan: datuak@bilbao.eus edo Navarra kalea, 5 – 48001 Bilbo.

Halaber, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (AEPD) www.aepd.es

8.6 Tratamendu gehigarriak

Bilbao Ekintza, E.P.E.L.ek egindako datuen tratamenduei buruzko informazio zehatza nahi izanez gero, eskuragarri dagoen pribatutasun-politika kontsulta daiteke edo datuak@bilbao.eus helbidearen bidez eskatu.

9. KONFIDENTZIALTASUNA

Deialdi honen esparruan sortutako informazioa ez da tratatuko bere eremuari dagokiona ez den beste ezertarako, eta biltzen dituzten datu pertsonalen zein enpresakoen konfidentzialtasuna

bermatuko da, honako baldintza hauetan publizitatearen arloan jasotzen diren ahalmenak ezertan eragotzi barik.

10. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA

Bilbao Ekintzak deialdi honetako baldintzak interpretatzeko eskubidea izango du, zalantzarik sortzen duen edozein egoera dela-eta; halakoetan, behin betiko erabakiak hartuko ditu.

Dueto Bilbao proiektuaren hautaketa-prozesuan parte hartze hutsak berekin dakar indarrean dagoen legeria betetzea, oinarriak onartzea eta Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek edozein zalantza argitzeko edo horiekin lotutako edozein interpretazio lotesle egiteko duen gaitasuna aitortzea. Bilbao Ekintzak ez du erantzukizunik izango hirugarrenen eskubideen balizko urraketen aurrean.